

TAPIA ETA LETURIA

Joseba Tapiak eta Xabier Berasaluzek, "Leturiak", taldea osatzen dute.

Joseba Tapiak (Lasarte-Oria, Gipuzkoa 1964) trikitilaria da, trikitilari famili batekoa. Umetan soinu handia ikasten hasi zen, baina 8 urte ondotik, 15 urterekin trikitixa ikastea erabaki zuen.

Xabier Belasaluze "Leturia" (Villabona, Gipuzkoa, 1954) pandero jotzailea da. 3 urterekin pianoa eta sorfeoa ikasten hasi zen.

Ogibidez Kutxabaneko langilea izan zen.

Taldea 1984an sortu zuten.

Trikitilarien mugak hautsi eta rockarekin, raparekin edota rai musikarekin lotu eta entzule berriengana eramane zituzten euren doinu dantzagarriak.

Taldearen diskoak hauek dira :

Jo eta hautsi (1987), Juergasmoan (1990), Dultzene menea (1998), Bizkaiko koplak zaharrak (1999) eta Hain zuzen (2002).

Kanta ospetsuak: Maite zaitudalako, Hik lan eta nik jai,
Compostelako erromesa, Astotxo bat baneuko, Festarik festa,
Galdurikan nago

Kanta: Astotxo bat baneuko

<https://www.youtube.com/watch?v=wcdPd9i8VeA>

Letra:

Astotxo bat baneuko
bustan zuriegaz
Ermura joateko
gona gorriegaz

Txirikitin txainia
biar domekea,
txokolatez beterik
baneuko tripea

Arrabako landea
balego Gorbeien
antxe egingo geunke
zirikin zakien

Bat bi iru lau
balego eta balitz,
bost sei zazpi
alkarrekin dabiltz

Egileak: Oier Ugartemendia eta Eneko Zelaieta